

Arteak eta Giza Zientziak

2017. urtean Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren hainbat ebaluazio prozeduratako 126 txosten igorri zituen. Horietatik, %8,7a Arteak eta Giza Zientziak arloaren tituluei dagokie, %37,3a Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoei, %4a Zientziei, %8,7a Osasun Zientziei eta %41,3a Ingeniaritza eta Arkitekturari. Mailaren arabera sailkatuz gero, txostenen %54a graduako tituluei dagokie, %38,9a masterreko tituluei eta %7,1 doktorego programei.

Arteak eta Giza Zientzien jakintza arloan 12 txosten igorri ziren, hain zuzen ere. Horietatik %8,3a egiaztapen programan, %50a jarraipen programan eta gelditzen den %41,6a egiaztapena berritzeko programan. Erakundeen arabera sailkatuz gero, %25a Deustuko Unibertsitatekoak izan ziren eta %75a Euskal Herriko Unibertsitatekoak.

2017. urtean egiaztapen programan ebaluatutako titulu bakarra Deustuko “Estudios Bíblicos: Historia e Influencia de la Biblia” unibertsitate masterra izan zen. Unibasqek hurrengo gomendioak egin zituen: ordu presentzialak eta ez presentzialak batzen dituzten irakaskuntzaren plangintzarekin lotutako alderdiak artatzeko, era berean on-line ematen diren irakaskuntzetan ikasleen nortasuna bermatzeko prozeduren jarraipen arduratsua egiteko. Agentziak lotutako ikerketa jarduera jarraipen berezia izan behar duela adierazi zuen. Izan ere, jarduera hori bermatzeko aurkeztutako proiektuek ez dute epe ertainean iraungo egingo dutenik.

Jarraipen programaren helburuak hurrengoak dira: alde batetik, irakaskuntzen garapenean egon daitezkeen hutsuneak detektatzea eta hobetzeko gomendioak ematea; eta beste alde batetik, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea.

Antolamendua eta garapenaren atalean, Unibasqek zentro arduradunek tituluen egiaztatutako memorieta eskainitako plaza kopurua ez gainditzea gomendatzen du, eta eskaera urria egonez gero, tituluen erakargarritasuna hobetzea laguntza ekonomikoak eskainiz eta nazioartekotasuna sustatuz.

Informazioa eta gardentasuna atalari dagokionez, Unibasqek hurrengo gomendatzen du: tituluaren web orrialdea programaren ezaugarriak eta emaitzak era egokian komunikatzeko nabarmena izatea eta era errazean eskuragarri egotea. Intereseko alderdien artean hurrengoak aipatzen dira: tituluaren sarbideak eta onartzeko irizpideak; irakaskuntza-gida ikaskuntza plana eta ikasteko baliabideekin, irakasle eta ikertzaileen curriculumak barne; mugikortasunerako baldintzak eta kanpo praktikak egiteko aukera; tutorea edo zuzendaria esleitzeko prozedura, hala badagokio; eta tituluaren adierazleak, egresatuen lanbideratzekoak kontuan hartuz bereziki.

Giza baliabideen arloan, langile akademikoaren lanbide-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-erperientzia ez dela homogeneoa egiaztatu da. Honen ondorioz, Unibasqek irakaslearen kanpo ebaluazioa sustatzeko gomendatzen du, bere irakasteko eta ikertzeko potentziala kalitate adierazle altuetara eramateko asmoz. Alde batetik, DOCENTIAZ programaren bidez egiaztatutako irakasleak gehituz, beste alde batetik, langile akademikoaren ikerketa-emankortasuna eta seiurtekoen kopurua handitzeko sustapen-neurriak hobetuz.

Mugikortasunak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia kontuan hartuz, zentro arduradunek irakasleen eta ikasleen mugikortasuna gehitzeko jarduerak garatzeko gomendatzen da.

Adierazleen azterketa tituluen jarraipen prozesuan funtsezko alderdia da. Horregatik, Unibasqek tituluaren garapenean parte diren taldeen asetzeari buruzko informazioa izatea gomendatzen du, bereziki, egresatuen asetze- eta laneratze-mailari buruz. Interes-taldeek tituluaren garapenari buruzko iritzia osatzeko behin eta berriro egiten den eskaera aproposa da. Era horretan, onura lehiakorrek kontuan hartuz, dagozkien erabakiak har ditzaten.

Jarraipen programaren beste helburuetako bat, gomendioekin batera, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea da. Horrela, UPV/EHUtik titulu batzuen langile akademikoen lanbide- eta ikerkuntza-maila nabarmen daiteke, adibidez “Estudios Clásicos” masterrean, Filologia graduan (doktoreak ez direnak %20 baino gutxiago da) eta Arte graduan (ofizialak ez diren hizkuntzetan egiaztatutako portzentaje altua). Horrez gain, unibertsitateak irakasleek doktore gradua eskuratzeko sustapen planak ditu. Era berean, mugikortasun eta kanpo praktiken planak izatea balioetsi zen.

Unibasqek 2017. urtean gradu eta masterren egiaztapena berritzeko 5 eskaera ebaluatu ditu Arte eta Giza Zientzien arloan. Emaitzak Euskal unibertsitate sistemaren osotasunean egokiak dira. Izan ere, batez bestez irizpideak guztiz betetzen dira tituluen %66,9an. Nabarmentzekoa da oinarrizko betebeharrak gainditzen duen betetze-maila %8,8a, eta hobetzeko arloekin gutxieneko betetze-maila, %10,4a. Gutxieneko maila betetzen ez diren irizpideak %0,5a baino ez da. Bukatzeko, “Erantzunik gabeko” itemak %21,6ra heldu dira.

Aipatzekoa da kalitatea bermatzeko sistemak lortutako aldeko emaitzak. Izan ere, ebaluatutako tituluen %40ko kasuan irizpideak batez bestez bikaintasunez gainditzen dira, hala ere, gelditzen den %60a datuak ez dauden tituluei dagokie. Zati batean lortzen diren irizpideen ehuneko altuenak “Informazioa eta gardentasuna” eta “Ikaskuntza emaitzak” irizpideei dagozkie (%20 kasu bakoitzean), “Antolakuntza eta garapena” eta “Gogobetetze adierazleak” jarraian doazela, %12arekin kasu bakoitzean. Ohiko arrazoen artean, informazio zehatzaren falta dago. Kasu berezi batean, “Políticas lingüísticas y planificación” masterrean, dauden gabeziak eta irizpide batzuetan lortutako puntuazio bajua titulua ezartzeko eta garatzeko zailtasunei dagozkie, titulua atzerrian ematen da eta.

Gizarte- eta Lege-Zientziak

2017. urtean Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren hainbat ebaluazio prozeduratako 126 txosten igorri zituen. Horietatik, %8,7a Arteak eta Giza Zientziak arloaren tituluei dagokie, %37,3a Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoei, %4a Zientziei, %8,7a Osasun Zientziei eta %41,3a Ingeniaritza eta Arkitekturari. Mailaren arabera sailkatuz gero, txostenen %54a graduko tituluei dagokie, %38,9a masterreko tituluei eta %7,1 doktorego programei.

Gizarte- eta Lege-Zientzien jakintza arloan 47 txosten igorri ziren, hain zuzen ere. Horietatik %2a egiaztapen eta aldakuntza programetan, %45a jarraipen programan eta gelditzen den %51a egiaztapena berritzeko programan. Erakundeen arabera sailkatuz gero, %36a Deustuko Unibertsitatekoak izan ziren, %23a Mondragon Unibertsitatekoak eta gelditzen den %40a Euskal Herriko Unibertsitatekoak.

2017. urtean egiaztapen programan ebaluatutako titulu bakarrean, Unibasqek tituluan ematen diren edukiak master mailakoak izatea, MECES 3. mailakoak izatea hain zuzen ere, zaintzeko gomendatu zuen. Era berean, agentziak dio eskaera sustatzeko ikasleen sartzeko profila oso zabala dela eta honen ondorioz, ikasketa planaren gaitasunak eta edukiak gradu mailara jaisteko arriskua egon daitekeela.

Jarraipen programaren helburuak hurrengoak dira: alde batetik, irakaskuntzen garapenean egon daitezkeen hutsuneak detektatzea eta hobetzeko gomendioak ematea; eta beste alde batetik, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea.

Antolamendua eta garapenaren atalean, Unibasqek zentro arduradunek tituluen egiaztatutako memorieta eskaintako plaza kopurua ez gainditzea gomendatzen du, eta eskaera urria egonez gero, tituluen erakargarritasuna hobetzea laguntza ekonomikoak eskainiz eta nazioartekotasuna sustatuz. Gainera goi-mailako zikloetan erakundeek tesi doktoraletan jatorria duten ekarpenak eragin handiko aldizkarietan argitaratzeko sustapen neurriak ezartzea proposatzen da.

Informazioa eta gardentasuna atalari dagokionez, Unibasqek hurrengo gomendatzen du: tituluaren web orrialdea programaren ezaugarriak eta emaitzak era egokian komunikatzeko nabarmena izatea eta era errazean eskuragarri egotea. Intereseko alderdien artean hurrengoak aipatzen dira: tituluaren sarbideak eta onartzeko irizpideak; irakaskuntza-gida ikaskuntza plana eta ikasteko baliabideekin, irakasle eta ikertzaileen curriculumak barne; mugikortasunerako baldintzak eta kanpo praktikak egiteko aukera; tutorea edo zuzendaria esleitzeko prozedura, hala badagokio; eta tituluaren adierazleak, egresatuen lanbideratzekoak kontuan hartuz bereziki.

Giza baliabideen arloan, langile akademikoaren lanbide-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-esperientzia ez dela homogenea egiaztatu da. Honen ondorioz, Unibasqek irakaslearen kanpo ebaluazioa sustatzeko gomendatzen du, bere irakasteko eta ikertzeko potentziala kalitate adierazle altuetara eramateko asmoz. Alde batetik, DOCENTIAZ programaren bidez egiaztatutako irakasleak gehituz, beste alde batetik, langile akademikoaren ikerketa-emankortasuna eta seiurtekoen kopurua handitzeko sustapen-neurriak hobetuz. Mugikortasunak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia kontuan hartuz, zentro arduradunek irakasleen eta ikasleen mugikortasuna gehitzeko jarduerak garatzeko gomendatzen da.

Adierazleen azterketa tituluen jarraipen prozesuan funtsezko alderdia da. Horregatik, Unibasqek hurrengo gomendatzen du: Lehenik, emaitzen adierazleak aztertzea sartzeko profila kontuan harturik eta emaitza okerrenak dituzten ikasgaietan ikasleen errendimendua hobetzeko 0 mailako ikastaroak martxan jartzeko egokitasuna baloratzea. Bigarrenik, tituluaren garapenean parte diren taldeen asetzeari buruzko informazioa izatea, bereziki, graduatuen asetze- eta laneratze-mailari buruz. Interes-taldeek tituluaren

garapenari buruzko iritzia osatzeko behin eta berriro egiten den eskaera aproposa da. Era horretan, onura lehiakorrek kontuan hartuz, dagozkien erabakiak har ditzaten.

Jarraipen programaren beste helburuetako bat, gomendioekin batera, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea da. Horrela, UPV/EHUtik Ekonomia eta Enpresako Fakultatearen langile akademikoen lanbide eta ikerketa maila aipatzekoa da; zenbait tituluetan ikasleen ERASMUS mugikortasuna; eta sare sozialetan dagoen presentzia, komunikaziorako elementu moduan eta informazioa gehitzeko. Deustuko Unibertsitatean unibertsitateen arteko doktorego programetan elkarrekin egindako formakuntza jarduerak garatzea baloratzen da. Era berean, gaur egungo gaiei buruz ikasleak eta irakasleak eztabaidatzeko aukera ematen duten ikerketa foroak balioesten dira. Gainera foro hauetan nazioarteko adituek parte hartzen badute, ikasleen nazioarteko esperientzia bermatzen da. Mondragon Unibertsitateari dagokionez hurrengo nabarmentzen da: ikasleek kanpo praktikak egiteko aukera dute lehenengo kurtsoetik unibertsitateak lan munduarekin duen harreman estua dela eta, emandako beka kopuru handia eta graduatuen laneratze altua. Honen ondorioz, beraien tituluaren graduazio profila ondo baloratzen da, bai ikasleen aldetik, baita graduatuen aldetik ere.

Unibasqek 2017. urtean gradu eta masterren egiaztapena berritzeko 24 eskaera ebaluatu ditu Gizarte- eta Lege-Zientzien arloan. Emaitzak Euskal unibertsitate sistemaren osotasunean egokiak dira. Izan ere, batez bestez irizpideak guztiz betetzen dira tituluaren %66,9an. Nabarmentzekoa da oinarrizko betebeharrak gainditzen duen betetze-maila, %11,7a, eta hobetzeko arloekin gutxieneko betetze-maila, %4,6a. Bukatzeko, "NC" itemak %16,8ra heldu dira.

Aipatzekoa da kalitatea bermatzeko sistemak lortutako aldeko emaitzak. Izan ere, ebaluatutako tituluaren %62,5eko kasuan irizpideak batez bestez bikaintasunez gainditzen dira. Egiaztapena berritzeko alde ez hain ona irizpideak ez-betetze partziala da, bereziki "Antolakuntza eta garapena" atalean. Gehien ematen diren arrazoiak hurrengoak dira: ikasketa planaren ezarpenaren eta programaren antolakuntzaren arteko desadostasunak, irakaskuntza koordinatzeko mekanismoetan hutsuneak, eta eskainitako plaza kopuruaren eta egiazko matrikularen arteko orekarik eza.

Zientziak

2017. urtean Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren hainbat ebaluazio prozeduratako 126 txosten igorri zituen. Horietatik, %8,7a Arteak eta Giza Zientziak arloaren tituluei dagokie, %37,3a Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoei, %4a Zientziei, %8,7a Osasun Zientziei eta %41,3a Ingeniaritza eta Arkitekturari. Mailaren arabera sailkatuz gero, txostenen %54a graduiko tituluei dagokie, %38,9a masterreko tituluei eta %7,1 doktorego programei.

Egiaztapen programaren helburua hurrengo da tituluaren ematen diren edukiak master mailakoak izatea, MECES 3. mailakoak izatea hain zuzen ere. Agentziak dio eskaera sustatzeko ikasleen sartzeko profila oso zabala dela eta honen ondorioz, ikasketa planaren gaitasunak eta edukiak gradu mailara jaisteko arriskua egon daitekeela.

Jarraipen programaren helburuak hurrengoak dira: alde batetik, irakaskuntzen garapenean egon daitezkeen hutsuneak detektatzea eta hobetzeko gomendioak ematea; eta beste alde batetik, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea.

Antolamendua eta garapenaren atalean, Unibasqek zentro arduradunek tituluen egiaztatutako memorieta eskainitako plaza kopurua ez gaintzea gomendatzen du, eta eskaera urria egonez gero, tituluen erakargarritasuna hobetzea laguntza ekonomikoak eskainiz eta nazioartekotasuna sustatuz. Gainera goi-mailako zikloetan erakundeek tesi doktoraletan jatorria duten ekarpenak eragin handiko aldizkarietan argitaratzeko sustapen neurriak ezartzea proposatzen da.

Informazioa eta gardentasuna atalari dagokionez, Unibasqek hurrengo gomendatzen du: tituluaren web orrialdea programaren ezaugarriak eta emaitzak era egokian komunikatzeko nabarmena izatea eta era errazean eskuragarri egotea. Intereseko alderdien artean hurrengoak aipatzen dira: tituluaren sarbideak eta onartzeko irizpideak; irakaskuntza-gida ikaskuntza plana eta ikasteko baliabideekin, irakasle eta ikertzaileen curriculumak barne; mugikortasunerako baldintzak eta kanpo praktikak egiteko aukera; tutorea edo zuzendaria esleitzeko prozedura, hala badagokio; eta tituluaren adierazleak, graduatuen lanbideratzekoak kontuan hartuz bereziki.

Giza baliabideen arloan, langile akademikoaren lanbide-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-esperientzia ez dela homogenea egiaztatu da. Honen ondorioz, Unibasqek irakaslearen kanpo ebaluazioa sustatzeko gomendatzen du, bere irakasteko eta ikertzeko potentziala kalitate adierazle altuetara eramateko asmoz. Alde batetik, DOCENTIA programaren bidez egiaztatutako irakasle gehituz, beste alde batetik, langile akademikoaren ikerketa-emankortasuna eta seiurtekoen kopurua handitzeko sustapen-neurriak hobetuz. Mugikortasunak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duen garrantzia kontuan hartuz, zentro arduradunek irakasleen eta ikasleen mugikortasuna gehitzeko jarduerak garatzeko gomendatzen da.

Adierazleen azterketa tituluen jarraipen prozesuan funtsezko alderdia da. Horregatik, Unibasqek hurrengo gomendatzen du: Lehenik, emaitzen adierazleak aztertzea sartzeko profila kontuan harturik eta emaitza okerrenak dituzten ikasgaietan ikasleen errendimendua hobetzeko 0 mailako ikastaroak martxan jartzeko egokitasuna baloratzea. Bigarrenik, tituluaren garapenean parte diren taldeen asetzeari buruzko informazioa izatea, bereziki, graduatuen asetze- eta laneratze-mailari buruz. Interes-taldeek tituluaren garapenari buruzko iritzia osatzeko behin eta berriro egiten den eskaera proposa da. Era horretan, onura lehiakorrek kontuan hartuz, dagozkien erabakiak har ditzaten.

Jarraipen programaren beste helburuetako bat, gomendioekin batera, Euskal unibertsitate sistemaren esparruan zabaltzeko jardunbide egokiak identifikatzea da. "Biodiversidad, Funcionamiento y Gestión de Ecosistemas" masterrean EHUKo irakasle gehienak ospe handiko ikertzaileak eta ibilbide luzeak direla nabarmen daiteke, guzti hau ikerketa seiurteko kopuru handia eta irakaskuntza bosturtekoak alderatuz egiaztatu daiteke. Doktoreak diren ehuneko oso altua da. Horrez gain, seiurteko/kreditu ratioa oso altua da eta ikasturte akademikoak joan ahala handitu da. Gainera, masterra garatzeko espazioak, ekipoak eta langile egokiak ondo hornituta daude. "Química y Polímeros" masterrean irakaslearen irakaskuntza eta ikerketaren kalitatea nabarmentzeko da, %62k 5 bosturteko edo gehiago ditu eta %46k 4 seiurteko ditu.

Doktoreak diren ehunekoa oso altua da. Horrez gain, masterreko bi irakasgaitan irakaskuntza metodologiak aldatu dira eta ebaluatzeko sistema beste bostetan, espero diren ikaskuntza emaitzei hobeto egokitzeko, lortutako emaitza oso egokia izanik.

Osasun Zientziak

Osasun Zientzietako Batzordeak Unibasqek batzordeei emandako planteamendu orokorren barruan behintzat jokaera ildo ezberdinak eman ditzaketen bi oinarriko alderdi edo erronka eztabaidatu beharko zuen. Eginkizun ebaluatzailetik datozen beste aspektuak dira, zehazki:

1. Eginkizun hezitzailea.
 - a. Finkatzen den gizartean barneratzailea.

Erakunde publikoak bere artean eta pribatuekin lehiatu behar diren onartzea mendebaldeko gizartearen ezaugarriak ezartzea da. Gaur egun aurre egiten ari dira, zeharka, zenbait nazioarteko erakundek ikerketa oinarria hartuta unibertsitateak sailkatzen dutenean. Japon bezalako lurraldetan, unibertsitate pribatuak gehiengo direnak, dagoen lehiakortasuna mugagabea izan daiteke.

Ildo honetatik, dagoen erronka bat titulazioek ikasleak erakartzeko egin behar duten marketing-a eta agerikortasuna onartzea da. Honek guztiak web orrialdean dagoen informazioan irudika daiteke, beste jokaera ildo ahaztu gabe (irakaslegoa hobetzea, nazioko eta nazioarteko elkartrukeak, etab.), agintari arduradunek eta irakasleek orokorrean, baita administrazio langileek ere, guzti hau onartu eta bizitzeko helburuarekin.

Txosten honetan aipatutako hutsune gehienak marketing ezari dagozkio, bai baliabideena baita egileena ere.

- b. Eskatutako eginkizunen barnetzailea.

Boloniako aldaketatik datorren eginkizuna da. Kurrikulumaren aldaketa orain arte arreta jarri den gauzetatik beste puntuetara jartzera zuzenduta dago. Horrela, irakaskuntza, gaitasunetan oinarritzeaz gain, hurrengoan jarri behar du arreta: ikaslearengan eta ez irakaslearengan, ikaskuntzan eta ez irakaskuntzan, nola lan egiten eta ikasten duten (ikastera irakasten da) eta ez metodologia.

Txostenetan ez dago aipurik irakasleek ikaskuntzagatik egiten dutenari buruz, berrikuntza metodologikoetatik at.

2. Aldaketak sustatzen duen eginkizuna.

Atal honetan batzordearen eginkizunari buruz eta ondorioz Unibasqen eginkizunari buruz mintzatuko gara, ez kontrol pieza moduan, baizik eta aldaketak sustatzaile moduan, lortu nahi diren helburuak erdietsi eta indartzeko. Izan ere, kontrola berez, epe luzean, kontrolpean dagoen prozesu beraren zigortzailea da eta abiadura moteltzen besterik ez du egiten.

Seguruenik, erronka honek, bere aitzindaria Boloniako prozesuan izanik, ez da eztabaidatu eta unibertsitatean era bihurrian garatu da. Esandako prozesuak oso ezarpen zaila izan du, baina aurrera eramateko aurreko erronkan bezala agintari akademikoak eta irakasleak sartu beharko lirateke zenbait atazatan, adibidez: metodologia: alderantzikatutako ikasgela, ikasleari egindako galdera irekien bankuak, etab., zeharkako gaitasunak, bereziki ikastera ikastea.

Ondorioz, Osasun Zientzietako Batzordeak ataza berria hasi beharko luke zenbait gertaerari buruz definitu beharko litzatekeela, egoera ezberdinen ebaluazioen beharra ezartzetik, epe motz, ertain eta luzera jokaera ildo estrategikoak definitzeko aipatutako erronken eztabaidatzera.

Ingeniaritza eta Arkitektura

2017. urtean Unibasqek igorritako 126 txostenetatik, 3 egiaztapen programari dagozkie, 10 aldakuntzakoari, 68 jarraipenekoari eta 45 egiaztapena berritzekoari. Titulu berri gutxi egiaztatzeke aurkezteak (gradu bat eta bi master) Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek egindako titulazioen eskaintzaren nolabaiteko egonkortzea aditzera eman dezake.

Ingeniaritza eta Arkitekturako Batzordeak 52 txosten igorri zituen, guztietatik %41,3a eta 2017 txosten gehien igorri duen batzordea izanik. Era berean, egiaztapen, aldakuntza eta jarraipen programen lehena izan da, bakarrik Gizarte- eta Lege-Zientzietako batzordeak gaindituta egiaztapena berritzeko programan.

Formakuntza zikloen arabera, Ingeniaritza eta Arkitekturako Batzordeak programa ezberdinetan, graduko 31 titulu, masterreko 19 titulu eta 2 doktorego programa ebaluatu ditu. Erakundeen arabera, titulu gehienak, 26 zehazki, Euskal Herriko Unibertsitatekoak dira, Mondragon Unibertsitatekoak 15 izanik eta Deustuko Unibertsitatekoak 11.

Egiaztapen programan, gradu eta master bana besterik ez dira aurkeztu ebaluaziora. Aipatzekoa da behin betiko txostenetan jasotako gomendio kopuru urria. Izan ere, Ingeniaritza eta Arkitekturako Batzordeak egindako behin behineko txostenak abiapuntu hartuta tituluen arduradunek egindako azterketa sakonaren fruitua da. Horrela, masterreko behin behineko txostenean jasotako 18 aldaketetatik, behin betiko txostenean 3 besterik ez dira gelditzen. Graduaren kasuan, 16 aldaketak eta 3 gomendioetatik, gomendio bakarrean gelditu da. Programa honetan atera daitekeen ondorio nagusia unibertsitateen eta Unibasqen arteko elkar eragiteak titulazio berrien proposamenen hobekuntza argiaren emaitza eman duela da.

Aldakuntzaren programan Deustuko Unibertsitateko master baten, norainoko urriko, eskaera eta Mondragon Unibertsitateko 8 graduen aldaketak ebaluatu dira. Azken kasu honetan, graduen titulazioen egitura homogeneizatu eta berregituratzeko baterako estrategia zegoen, bateratutako gutxieneko bilakaera abiapuntu izanik. 8 eskaera hauen ebaluazioa oso konplexua izan da eta hasierako eskaeretan aldaketa ugari egin behar izan dira legez ezarritako betebeharrak betetzen zirela eta titulu guztien koherentzia eta kalitatea bermatzeko. Esperientzia honetatik eta beste batzuetatik hurrengo ondoriozta daiteke, kasu konplexuetan aldaketak titulazioaren alderdi askori eragiten dionean, gomendagarria litzateke egiaztapen memoria berria egitea, titulazio osoaren koherentzia ziurtatzeko eta egiaztapen prozesu berri batean bere azterketa osoa uzten duena.

Nabarmena da jarraipen programaren lan karga, izan ere, Ingeniaritza eta Arkitekturako Batzordeak programa honetan txosten gehien igorri ditu, guztira 30, 19 gradukoak, 9 masterrekoak eta 2 doktorego programakoak.

Graduei dagokienez, jarraipen txostenetan jasotako hobetzeko gomendioek hurrengoari egiten diote erreferentzia: lehenik, titulazio bakoitzak bere egiaztapen memorian, edo hala badagokio, aldeko txostena izan duen azken aldakuntzan, aurreikusitako plaza kopurua eskaintzeko beharrari, eta, kasu askotan, zabaltze-jarduerekin tituluari buruz dakiguna eta bere gizartean duen presentzia bultzatzearen komenigarritasunari. Gomendio asko jasotzen duen alderdia bere web orrialdean dagoen informazioa osatzeko beharra da, eta informazio hau era praktikoan eta eskuragarrian jartzekoa.

Irakaslegoari dagokionez, gomendio nagusia eta gehien aipatzen dena irakasleagoren teknologia transferentzia eta ikerketa-jardueraren kalitatea eta kantitatea hobetzearena da. Bigarren maila batean, titulazioan benetan klaseak ematen duena eta zenbatekoa izan den bere parte-hartzea geldituko litzateke. Era berean, DOCENTIAZ programaren barruan ebaluatzen den irakasleagoren portzentajea gehitzearen gomendia ere ohikoa da.

Beste ohiko gomendia hurrengoa da mugikortasun programei ematen zaien arreta eta hauek nola sustatu bidalitako eta etorritako ikasleen oreka saiaturaz. Halaber tituluen adierazleen baloreak eman beharra, eta beraien eboluzioa ikasturteetan zehar, eta aurreikusitako baloreak heltzen ez direnean bere hobekuntzarako dagozkien ekintzak martxan jartzea errepikatzen diren gomendioak dira. Graduatutako pertsonen gogobetetze eta laneratzeari buruzko datuak, baita enplegu-emateen gogobetetzeari buruzko datuak ere, faltan botatzen dira titulu askotan.

Masterreko titulazioen jarraipen txostenetan jasotako hobekuntza gomendio asko, esaterako: programa erakargarriago egiteko estrategiak ezartzea, ikasleak erakartzeko mekanismoak hobetzea, hedatzeko ekintzak egitea, web orrialdean dagoen informazioa betetzea eta era praktikoan eta eskuragarrian aurkeztea, langile akademikoaren teknologia transferentzia eta ikerketa-jardueraren kalitatea eta kantitatea hobetzea, eta mugikortasun programak sustatzea, graduatan ematen diren gomendioen antzekoak dira. Masterretan bereziki aurkitzen diren gomendioen artean, hurrengoak aipa daitezke: tituluen nazioartekotzea sustatzea, Unibasqen protokoloari jarraiki adierazle egokien balore guztiak aurkeztea, eta formakuntza osagarrien eta kanpo praktiken informazioa hobetzea.

Doktoregoen jarraipen programan igorritako txostenetan gomendioez gain, egiaztapena berritzeko fasean aldeko txostena lortzeko hobetu beharreko alderdiak gehitu dira. Alderdi hauek hurrengoak izan dira: irakasleen ikerkuntza emankortasuna gehitzeko plana ezartzea, irakasleen curriculumak web orrialdean argitaratzea eta Unibasqen protokoloan aipatzen diren adierazleak aurkeztea. Gomendioen artean, gradu eta masterrekin bat egiten direnez gain, hurrengoak aurki daitezke: Tesi tutorea eta zuzendaria esleitzeko prozedura argitzea eta ekoiztako tesien kalitatea (eragin handiko argitalpenak kontuan hartuz) bermatzeko barne mekanismoa ezartzea.

Jarraipen programaren alderdi garrantzitsua unibertsitateek tituluen garapenean dituzten jardunbide egokiak identifikatzea da. 2017ko ebaluazioetan antzemandako nagusienak hurrengoak dira: web orrialdean beste ikasle batzuen aurreko esperientziak eta enpresekin dituzten harremani buruzko informazioa argitaratzea, lehen aukerako aurreko izen-ematez ikasleen tasa altua, ingelesez ematen diren irakasgaien eskaintza, DOCENTIAZ programan ebaluatutako irakasleen portzentaje altua, irakasleek doktorego tesiak bukatzeko laguntzeko ekimenak, inguruneko enpresatan praktikak edo gradu bukaerako lana egitea, ikerkuntza proiektuetan irakasle batzuen parte hartze oso aktiboa, eta tesiak oso erritmo onean garatzeko prozedurak ezartzea.

Egiaztapena berritzeko programan, Ingeniaritza eta Arkitekturako Batzordeak 11 txosten igorri ditu, horietatik 6 gradu titulazioei dagozkien eta 5 master titulazioei. Gidalerroak, 7 irizpideetakoak, ebaluatzeko lau mailetatik, titulazio guztien artean gehien ematen dena "lortzen da" izan da (%78,4a), eta %11rekin "bikaintasunez gainditzen da" aurki daiteke. Oso kasu gutxitan "zati batean lortzen da" balorazioa eman da eta ez da inoiz eman "ez da lortzen". Hori dela eta, guztira, Batzorde honek egindako egiaztapena berritzeko ebaluazioek emaitza egokia izan dute.